Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

*Maria Luixa Otegi Tolosa*

*Asteasu, Gipuzkoa (1928)*



Aurkibidea

## Biografia



Asteasuko Gorua baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Albizturkoa. 9 senide izan ziren eta bera bosgarrena zen. Eskolan gutxi ibili ziren, beti lanen bat izaten baitzen etxean egiteko. 12 urterekin neskame joan zen Errenteriara. Handik Donostiara joan zen, baina kale-etxe batean ez zen hain gustura aritu eta Astigarragara joan zen azkenean han lan egitera. Bertan ezkondu zen herriko seme batekin eta geroztik han bizi izan da. Donostiara merkatura joateko ohitura hartu zuen eta azken urteetan ere horretan dabil oraindik.

## Zintak

### AST-008

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-10-05
- **Iraupena**: 92 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

## Pasarteak

### 1. Etxean urik eta argindarrik ez

- **Erref**: AST-008/004
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:03:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena**:
Urik ez zeukaten etxean eta errekara joan behar izaten zuten bila. Noizbait baldea erori eta berriro bueltatu beharra ere izaten zen. Aitak jarri zituen hodiak menditik zetorren ura etxera bideratzeko. Asteasuko Gorua baserrian jaio zen. Argia ere gerora ezagutu zuen.

## 2. Ogia etxean egiten zen

- **Erref**: AST-008/006
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:04:14. **Bukatu**: 00:05:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
Garia errotan eho eta labean egiten zen ogia. Gari-taloak ere egiten zituzten. Ogi trinkoa ateratzen zen, asko betetzen zuen.

## 3. Neskame eta morroi

- **Erref**: AST-008/009
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:06:24. **Bukatu**: 00:07:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena**:
Eskolara joan ordez baserriko lanak egin behar izaten zituzten. Gero neskame eta morroi joan ziren guztiak, ahizpa bat ezik; hura fabrikan ibili zen.

## 4. Orduko bizimodua

- **Erref**: AST-008/010
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:07:38. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Zegoenarekin konformatzen ziren orduan. Egunero babarruna jaten zuten. Platerik ez zuten jartzen, koilararekin zuzenean erretilutik hartzen zuten. Etxean urik ez zutenez errekara bidaltzen zituzten umeak ur bila. Gero aitak jarri zituen hodiak ura etxera bideratzeko. Komuna ganbaran zeukaten eta egiten zutena ukuiluko simaurrarekin nahasten zen.

## 5. "Aimarik" jotzerako etxera

- **Erref**: AST-008/011
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Ilunabarrean elizako kanpaiak "Aimarik" (Ave Mariak) jotzerako etxera joan behar izaten zuten. Amona gaiztoa zuten, egurrarekin hanketan jotzen zien.

## 6. Tolosako eta Villabonako feriak

- **Erref**: AST-008/013
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Gizonak astelehenetan Tolosako feriara joaten ziren. Emakumeak, berriz, larunbatetan. Emakumeak asteartetan Villabonako feriara ere bai. Asteasutik autobusez joaten ziren. Zer saldu eta erosten zuten. Ganadu asko zeukaten baina gutxi ordaintzen zieten.

## 7. Sagardogile bati saltzen zizkieten sagarrak

- **Erref**: AST-008/014
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:13:48. **Bukatu**: 00:15:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

**Laburpena**:
Sagar asko zeuzkaten eta sagardogile bati saltzen zizkieten. 12 sagar zaku kalera eraman eta ganbararaino igo behar izaten zituen aitak.

## 8. Otorduetan jaten zutena

- **Erref**: AST-008/015
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:15:49. **Bukatu**: 00:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Gosaltzeko baratxuri-zopa, taloa eta esnea izaten zuten. Bazkaltzeko babarruna egunero. Amonari aza asko gustatzen zitzaion eta aza-olioa egiten zuen. Txerriki asko ere izaten zen.

## 9. Maistra bizikletan

- **Erref**: AST-008/017
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:17:31. **Bukatu**: 00:19:49

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena**:
Eskolara joan ez izanaren pena du. Eguraldi txarra zenean bidaltzen zituzten eskolara. Maistra Pasaiakoa zen. Villabonara trenez iritsi eta handik Asteasura bizikletaz joaten zen. Aldapa handia jaisteko Luixari eskatzen zion bizikleta eramateko. Euskalduna zen eta euskaraz irakasten zuen.

## 10. 12 urterekin neskame

- **Erref**: AST-008/018
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:19:49. **Bukatu**: 00:21:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

**Laburpena**:
12 urterekin eskola utzi zuen neskame joateko. Urteko soldata nagusiek amari ematen zioten zuzenean. Eliza ondoan oinetakoak aldatzen zituzten.

## 11. Izebak ekarritako soinekoen irrikan

- **Erref**: AST-008/019
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:21:36. **Bukatu**: 00:23:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

**Laburpena**:
Villabonako izebak soinekoak ekartzen zizkieten eta San Pedroetan estreinatzen zituzten. Zapata takoidunak gustatzen zitzaizkion Luixari.

## 12. Gerra garaiako krudelkeria

- **Erref**: AST-008/020
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:23:16. **Bukatu**: 00:26:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Txikia zen gerra garaian. "Gorriak" zetozela entzuten zuten. Osaba

ezkongabea fusilatu egin zuten. Herriko jauntxoek oiloak ere lapurtu zizkieten. Ahizpa zaharragoak falangez jantzita ibili ziren. Janaria herrira entregatu behar izaten zuten.

## 13. Osaba fusilatu zuten

- **Erref**: AST-008/022
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:27:09. **Bukatu**: 00:29:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Osaba etxean gosaltzen zegoela eraman eta fusilatu egin zuten. Amonak negar asko egiten zuen. Hileta ere ezin izan zuten egin, ez baitzekiten gorpua non zegoen. 3 etxetatik eraman zituzten gizonak.

## 14. Haur jaioberriak

- **Erref**: AST-008/025
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:30:40. **Bukatu**: 00:32:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

**Laburpena**:
Haurdun geratzen ziren ezkongabeak Donostiara joaten ziren eta han Fraisoron jaioberria utzi. Baziren handik umea ekartzen zutenak ere. Norberak esne nahikoa ez bazeukan, auzokoak ematen zion jaioberriari bularra.

## 15. Auzolana: artoa eta garia

- **Erref**: AST-008/026
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:32:39. **Bukatu**: 00:34:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena**:
<p>Garai batean auzokideek elkar laguntzen zuten, artoa eta garia ereiterakoan adibidez. "Txorraia" erabiltzen zuten, aitzur txiki bat. Gero askaria ematen zieten. Garia jotzeko ere indarra behar zen. Hauts asko sortzen zen. Eguraldi ona behar zen.</p>

## 16. Gariaren lanak

- **Erref**: AST-008/027
- **Iraupena**: 0:04:17. **Hasi**: 00:34:29. **Bukatu**: 00:38:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena**:
<p>Garia ereiteko lehenengo lurra prestatu behar zen, behiekin itaurrean. Udaberrian ereiten zen eta abuztuan jaso. Igitaiarekin mozten zen, sortak egin eta etxera eraman. Jotzeko jendea etortzen zen laguntzera. Harri baten kontra jotzen zen eta hauts asko sortzen zen. Geroago makinek egiten zuten lan hori. Sobratzen zen lastoarekin behien azpiak egiten ziren eta animaliei jaten eman ere bai, barazkiekin nahastuta.</p>

## 17. Ganbaran gordetzen zituzten jakiak

- **Erref**: AST-008/028
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:38:46. **Bukatu**: 00:39:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Garia ganbaran gordetzen zuten. Patata eta babarruna ere bai. Txerriaren manteka erabiltzen zuten frijitzeko.

## 18. Errotak ez ziren libre

- **Erref**: AST-008/029
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:39:54. **Bukatu**: 00:41:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
Garia zakuetan gordetzen zuten eta errotara eraman. Baina errotak itxita egon ziren garai batean eta aita Ordiziaraino ere joan izan zen astoarekin gauez.

## 19. Neskame lanak Errenterian

- **Erref**: AST-008/033
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:45:55. **Bukatu**: 00:48:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
12 urterekin neskame joan zen Errenteriara, umeak zaintzera. Gero Donostian ere egon zen. Errenteriako etxean taloak egiten zituen gosaltzeko. Bazkaltzeko egunero babarruna jaten zuten, aza eta txerrikiekin.

## 20. Gaztainak eta perretxikoak

- **Erref**: AST-008/034
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:48:33. **Bukatu**: 00:50:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
<p>Gaztainak izaten zituzten neguan. Danbolinean erretzen zituzten. Aitari perretxikoak biltzea asko gustatzen zitzaion.</p>

## 21. Oilaskoak eta arrautzak azokara

- **Erref**: AST-008/035
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:50:33. **Bukatu**: 00:52:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Gaztainak eta perretxikoak ez zituzten merkatura eramaten; barazkiak, oilaskoak eta arrautzak bai. Eskasenak etxerako izaten ziren eta onenak saltzeko. Arrautzak otarrean edukitzen zituzten.

## 22. Amak gazta onak egiten zituen

- **Erref**: AST-008/039
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:55:31. **Bukatu**: 00:57:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Amak gazta oso onak egiten zituen, jaiotetxean ardiekin ibiliak baitziren. Baina etxean gutxi jaten zuten. Beraiek ez zuten ardirik Asteasun, behi gazta egiten zuen amak.

## 23. San Martin merkatura barazkiak saltzera

- **Erref**: AST-008/041

- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:57:55. **Bukatu**: 01:00:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Astigarragatik Donostiara joaten zen merkatura barazkiekin. Kamioi bat etortzen zitzaien etxera generoaren bila; beraiek autobusez joaten ziren. San Martinera joaten zen, beste batzuk Bretxara.

## 24. Barazkien prezioak azokan

- **Erref**: AST-008/042
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:00:16. **Bukatu**: 01:02:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Merkatuko barazkien prezioak saltzaileen artean adosten zituzten. Deskantsu momentuak ere izaten zituzten. Bazkal ordurako etxera itzultzen ziren.

## 25. Senarra paper-fabrikan ibilia

- **Erref**: AST-008/047
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:06:01. **Bukatu**: 01:07:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

**Laburpena**:
Senarra Hernaniko paper-fabrikan hasi zen lanean. Baina Luixak azokatik diru gehiago elkartzen zuela eta utzi egin zuen lantegia. Han 33 pezeta ordaintzen zizkioten astean.

## 26. Furgoneta berak gidatzen zuen

- **Erref**: AST-008/049
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 01:07:48. **Bukatu**: 01:09:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Furgoneta txikia gidatuz joaten zen Luixa esnea banatzera. Baziren gidabaimena ateratako emakume batzuk inguruan. Gaur egun ez dago aparkatzerik Donostian eta gainera ordaindu egin behar.

## 27. Umetako jolasak

- **Erref**: AST-008/051
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:10:20. **Bukatu**: 01:11:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
<p>Umetako jolasak aipatzen ditu: harrapaketak, txarpak (tortolosak), kartak...</p>

## 28. Gaztetako jaiak

- **Erref**: AST-008/052
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 01:11:58. **Bukatu**: 01:14:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Urtean behin San Pedroetan Asteasuko erromeriara joaten ziren. Zizurkilgo festetara ere ohitura zuten. Herniora ere bai. Soinujoleak egoten ziren. Garagardoa ez zitzaien gustatzen. Neska-laguntzea. Aita gogorra zuten. Ilunabarrean elizako kanpaiak "Aimarik" (Ave Mariak) jotzerako etxeratu beharra izaten zuten.

## 29. Erlijioarekin lotutako ohiturak

- **Erref**: AST-008/053
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 01:14:33. **Bukatu**: 01:17:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

**Laburpena**:
Ilunabarrean "Aimari" (Ave Maria) kanpaia jotzen zen. Egunsentian, berriz, "Argi ezkila". 6:30etan mezara joaten ziren, lastargiekin. Baraurik joan, konfesatu eta jauna hartu behar izaten zen. Orain Astigarragako meza nagusira jende gutxi joaten da, eta denak zaharrak. Angelusa izaten zen eguerdian.

## 30. Hiletak eta hil-kanpaiak

- **Erref**: AST-008/054

- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:17:36. **Bukatu**: 01:18:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

**Laburpena**:
<p>Norbait hildakoan etxez etxe ibiltzen ziren abisua ematen. Hiletak goizez izaten ziren eta ondoren hamaiketakoa egiten zen. Asteasun Ostatua zegoen eliza ondoan. Andazarrate erietxeko hil-kanpaia desberdina izaten zen.</p>

## 31. Andazarrateko erietxea

- **Erref**: AST-008/055
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 01:18:54. **Bukatu**: 01:19:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

**Laburpena**:
<p>Bularreko gaixoak Andazarratera eramaten zituzten sendatzera. Kanpotik ere eramaten zuten jendea. Hildakoak Asteasun hilobiratzen zituzten.</p>

## 32. Su-kanpaiak

- **Erref**: AST-008/056
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:19:37. **Bukatu**: 01:20:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena**:
<p>Baserriak su hartzen bazuen "amezkila" (arimezkila) jotzen zen eta auzokideak biltzen ziren laguntzeko. Askotan tximinia izaten zen arazoa.</p>

## 33. Beti sua etxean

- **Erref**: AST-008/057
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 01:20:39. **Bukatu**: 01:21:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Beti sua egoten zen etxean, goizetik piztuta. Egurra nahikoa izaten zuten.

## 34. Ekaitzetik babesteko errituak

- **Erref**: AST-008/058
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:21:32. **Bukatu**: 01:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Ekaitza zetorrenean ur bedeinkatua erabiltzen zuen amak. Erramua sutara botatzen zen.

## 35. Bizikletan batera eta bestera

- **Erref**: AST-008/064
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:28:10. **Bukatu**: 01:29:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena**:
Berehala egin ziten lagunak Astigarragan. Bizikletan batera eta bestera ibiltzen ziren. Anaiak erosi zion bizikleta.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-07-30*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com